


## Erromako inperioa: konkista eta deskonkista

### 1. Historialdia 2019ko urriaren 19an Ziordiko Amaraunean




## Joseba Mintegi Eskisabel

### *Erromatarren opari pozoitsuak: latinaren kimerak*

**Biltzari**

Historiazaleok

Hitzaldiak azaroan – (xn--iruaveleia-v9a.eu)



Lehen Hezkuntza irakaslea da eta urteak daramatza euskeraren “magia” ikertzen eta hedatzen.

Euskeraren jatorriari buruzko hitzaldi batzuk eman ditu besteak beste Euskeraren Jatorriak antolatutako biltzarretan zein Iberiar Hizkuntzaren eta Kulturaren Elkartean antolatutakoan.

Idatzitako ponentziak:

*Hamaikagarrean zorionez*

*Los sufijos en lengua ibérica*

### a) Historia eta Hizkuntzalaritza: herri kolonizatuak zapaltzeko tresnetako bi

Herri kolonizatu batean eguneroko bizitzaren arlo guztiak ez badira, gehien gehienak kolonizatzailearen esku egon ohi dira. Arlo horietako bat zientzia da eta bereziki bi zientzia izaten dira botereak bere egiten dituenak herri batek bestea menpekotzerakoan: **Historia eta Hizkuntzalaritza**.

Hizkuntzalaritza, Historia bezala, herri baten kultura eraikitzeko funtsezko zientzia dugu. Zientzia honen egitekoa da herri horren kulturaren euskarri den hizkuntzaren nondik norakoa aztertzea eta bere funtsezko oinarriak nabarmentzea. Baina, gure gizarte honetan, orokorrean, hizkuntzalaritza aspaldidanik oztopatuta dago hizkuntza klasikoetan. Hizkuntzalaritzak garrantzi handia du herri eta kultura baten nortasunak finkatzeko eta, noski, zenbait kasutan, gurean esaterako, horrek nabarmen oztopa ditzake hainbat interesek dituzten zapalketa nahiak.

Ezinbestean, argi eta garbi aldarrikatu behar dugu, gure egunerokotasunean, hizkuntzalaritza, historiarekin bat, zientziarik atzerakoiak ditugula. Hau boterearen **interesengatik** gertatzen da, interes kolonizatzaileak bitarteko idatzi baitituzte aipatu zientziok. Aipatu bi zientzia horiek botereak erabiltzen ditu bere nahi kolonizatzaile horiek zorrotz bete daitezen eta dena ongi lotuta uztearren.

Azalpen gisa aipu bat:

*“Euskal munduari dagokionez, “etnia isla”, “lengua isla” eta horrelako eritziak nagusi izan ditugu aspaldi honetan. Esan nahi da hemen sortu, hemen garatu eta bertan hiltzera doan giza-mundu bat garela gu euskaldunok, besteekin inolako loturarik ez dugun gizakiak. Eritzi hauek ez dute luzaro iraungo, ez baitute inolako oinarririk ez euskarririk.....Nire ustez Mediterraneo inguruko hizkuntza zahar guztiekiko ikerketak egin beharko lirake.....Horiekin guztiekin erkatu beharra du euskerak, baita besteekin ere: sumeriera, Urartukoa, Egiptoko koptoa, semitak, minoikoa (ezer badago behintzat), grekoa, albaniera, etab. Orain arte hau guztia pekatu astuna izan da, aipatu ere ezinezkoa, gure jauntxoak gustora jolasten baitzuten euskera latinarekin erkatzen, hori bai, beti latina eredutzat ezarritz”. Bittor Kapanaga “Euskera erro eta gara. Lan guztiak I. Euskaldunon ikuskera. 279. or.”.*

Kapanagak emandako iritzi honen hasiera, “etnia isla”, “lengua isla”, horrela saldu digute eta saltzen digute oraindik orain. Iritzi horien asmo bakarra gure hizkuntza **kapatzea eta bazterrean uztea, balio gabetzea** da eta gaurdaino ongi lortu duten asmoa izan da. Eta kapatu eta baztertu nola? Bada, inguruko hizkuntzekin izan ditzakeen lotura guztiak ezabatuz, ezinbestean, gainerako hizkuntzetatik desberdin dela erakusteko ahalegin guztiak eginez.

## **b) Euskal Herria pasabide garrantzitsua**

---

Europa mailan, egun ezagutzen dugun Euskal Herria leku estrategiko batean kokatuta dagoena ezin ukatu daitekeen errealitatea da. Historiaren kontaketa kasu egiten badiogu, bertatik pasa dira hainbat eta hainbat kulturetako giza taldeak. Gero, kristautasunaren ezarrerarekin, Historia deitzen den aldiaren barrena, Konpostelako Santiago sortu zenetik hona, harantzako bidearen gune garrantzitsu bat izan da eta jende asko pasa da bertatik.

Hala izanik, normala da jende horrek beren jatorriko lekuetatik gauzak ekartzea eta, noski, beren joanean hemendik gauzak eramatea ere. Baina azken parte hau ez digute horrela kontatzen.

Gogoan dut Joxemiel Barandiarani egindako elkarrizketa batean, Erromatik ekarri omen duten guztia aipatzen ziotelarik, Joxemielek erantzundakoa: “Nik dakidala Erromatik hona eta hemendik Erromara distantzia berbera dago...” Alegia, ekarri bezala eramateko aukera ere hor dagoela...

Baina kokapen horren izaera estrategikoa, mundu mailan izandako izotzaroen ondorio zuzena da. Garai haietan gure herriaren bazter hau, klimari dagokionez, babesleku garrantzitsua izan zen.

## **c) Latina hizkuntza ofiziala eta Elizakoa**

---

Euskeraren historia halako patu gaizto batez dago jantzita. Euskerari tamalezkoa gertatu zaio azken bi milurtekoetan historiaren haria idatzi duen eskutik at geratzea. Honen arrazoia, batez ere, erlijio kontuetan kristautasunaren zabalpenari euskal lurretan jarritako traba dago. Orain 2.500 urte inguru gaur egungo Italiako lurretan mintzatzen hasi zen **latinaren** lurretara erlijio hori iristeak eta erromatar inperioaren hiriburu den Erroman ezartzeak (K.o. III. mende erdi aldera) ondorio kaxkarra ekarri zuen Europan barrena eta Mediterraneo itsaso inguruan, aurrez ziren kulturentzat.

Erromako inperioa, militarki, indar handiz hedatu zen Europa hegoaldean eta Mediterraneo itsasoaren iparraldeko nahiz hegoaldeko herrietan, guztietan hizkuntza ofizialtzat latina ezarri. Esan bezala, Erromako muinean kokatutako erlijio kristauak ere latina hartzen du hizkuntza ofizialtzat. Beraz, bere agintari diren Aita Santuek eta eliz gizonak latina erabiltzen dute Jaungoikoarekin mintzatzeko. Jaungoikoarekin hitz egiteko bide bakarra **latina** da (hori kontraesan eta baldreskeria itzelekoa bada ere: ez al ziguten/digute jainkoa orojakilea dela saldu??). Eta noski, ondorioz, latina hizkuntza **sakratua** da. **Dogma sakratua**. Hori izango da latinari hegoak emango dizkion arrazoia.

Aro honetako laugarren mendean geroztik, Erromako inperioaren porrota datorrelarik (395. urtea), inperioaren menpe egon diren herriak latina alboratu eta euren hizkuntzetara itzultzen saiatzen dira. Baina eliza kristauak latinez jarraituko du ehunka urtetan, atzo goizera arte. Eta latina, beraz, funtsezko tresna bilakatzen da Jaungoikoarekin mintzatzeko kristau erlijioa bere egin duten herrietan. Hortik, latina **dogma** bilakatuzera pauso laburra dago. Eta dogma horrek, egun ere indarrean jarraitzen du.

## **d) Hizkuntza guztiek ez dira berdin aldatzen**

---

Hizkuntzak egunero modernotzen dira eta modernotze horretan narriatu ere narriatzen dira, hau da, jatorritik urrundu egiten dira. Hau errealitate bat da. Gertatzen da, ordea, hizkuntza batzuk,

beste batzuk baino joera argiagoa dutela modernotze horretan eta gure euskerak ez du besteek bezain joera garbia erakusten. Hitz batean, gure hizkuntza **egonkorragoa** da denboran.

Horrek ez du kentzen, ordea, gurearen inguruko beste hizkuntzek, zenbaitetan, hitzaren jatorria gure euskerak baino hobeto gorde izana.

Eta aurrez esan dugun bezala hizkuntzalaritza oinarriko zientzia dugu kulturaren eta hizkuntzaren oinarriak ezartzeko eta, beraz, tresnak ongi finkatuak izan behar ditu. Arau batzuk markatzen dute zientzia horren zuhertasuna. Hizkuntzaren nondik norakoaren, bilakaeraren azterketa egiteko, hainbat korapilo askatu behar dira eta hori arau zenbaiten menpe egite da. Noski, latina dogma sakratua delarik, arau horiek berari begira eraikitzen dira eta batzuetan norabide batean eta besteetan kontrakoan erabiltzen dira, hori bai, beti latina iturburu jarriz. Edozerk balio du latina guztiaren erdi puntuan jartzeko eta bide horiek markatzen dituzten arauak ezinbestekotzat jotzeko.

Adibide bezala har dezagun **AGUR** hitza. Guk, euskaldunok Euskal Herri osoan erabiltzen dugu, baina, antza, gaztelerak ere erabiltzen du, **agur** formarekin eta **abur** formarekin (azken hau gailegoek ere). RAEn begiratu gero latinetik datorrela esaten digu. Beraz, latinak antzerakorik baduenez, nahikoa arrazoi da hori guk handik hartua izateko. Planteatu ere ez da egiten alderantzizkoa. Guk ordea, familia bereko hitzak ditugu gure hiztegian: agurtu, agurtze, agurtza, agurka, agurkatu, agurgarri, agure, aguretasun... Aldiz, latinera joz, familia horretako hitzak bi baino ez dira: “**augurare**” eta “**augurium**”.

Gauza bera gertatzen da **KATU** hitzarekin. Gurean katu erroak familia oso bat eratzen du: katu, basakatu, katamotz, katamar, katamarka, katagorri, katail, katuil, katajineta, katakume, katakux, katama, katamalo, katamielga, katamixar, katamuturluze, katanarru, katarde, katatxori, katazulo, katazuri. Latinez berriz, hitza berantarra omen da, horrela aitortzen dute RAEn, eta dakigula, delako “**cattus**” hori baino ez dago...

Hori, ordea, ez da argigarri gertatzen latinaren dogma aho betez aldarrikatzen dutenentzako.

Ezer baino lehenago, eta txiripak (halabeharrezko edo zorte oneko gertakariak) saiheste aldera, esan behar da, ebidentziak kontutan hartuta, Ockhamen labana arrazoibide printzipioaren arabera, baldintza berberetan bi teoriak ondorio berberak baldin badituzte, teoria xumeenak zuzena izateko aukera handiagoa duela konplexuenak baino.

Arauekin hasi aurretik ordea, batzuk bilakaera sinpleak baino ez dira eta begibistaz aise sumatzen dira nondikoak diren:

#### **d) Adibideak**

---

##### **ESCALA/ESCALERA**

ESKU+ALA>ESKUALA>ESKALA+ERA>ESKALERA>ESKAILERA

ESKU+ALA>ESKUALA>ESKALA+ERA>ESKALERA>ESCALĀRE(lat)>ESCALERA(gaz)

ESKU+ALA>ESKUALA>ESKALA>SKĀLA(gr.biz)>SCALA(lat)>[ESCALA](#)(gaz)

ESKU+ALA>ESKUALA>ESKALA+ERA>ESKALERA>ESKAILERA

ESKU+ALA>ESKUALA>ESKALA+ERA>ESKALERA>ESCALĀRE(lat)>[ESCALERA](#)(gaz)

Antzinaroan ere, zenbaitetan, kobazuloetan sartzeko sarreraren azpitik kobazulora iristeko jendeak, ezinbestean, eskalatu egin behari zaten zuten. Horretarako, normala izaten zen eskuen

eta oinen altueran halako zulo une batzuk egite eta haiek eskua keta oinak sartzeko erabiliz igotzen ziren. Eskualak esan nahi du eskuaren ahaleran geratzen zirela aipatu zulo horiek. RAEk, nola ez, jatorriaren bilaketan, beti joko du latinera eta grekerara, beste gabe.

## IDEA

IDE+A>IDEA(gre)>IDEA(lat)>IDEA(gaz)>IDEIA(eus)

Antza, euskaldunok ez dugu gure hiztegian hitz horrek adierazten duen ustea jakinarazteko hitzik. Hitz latinak baduenez eta bere oinordeko den gaztelerak ere, nahiz eta hemengo hitzunek erabilia izan, bertako hiztegiek ez dute jaso, edota jaso badute, mailegu gisa jaso dute eta kitto.

Gure hiztegiek hori da jarraitu duten jokamoldea. Hitz, latinak edo gaztelerak bere horretan baldin badu, orduan hitza, argi eta garbi, ez da gurea, eta beraz guk mailegu gisa jasoko dugu jasotzekotan, eta aldaerarik baldin badu, aldaera hobetsiko dugu gure bezala. Hori agerikoa da azenario eta ideia aldaerekin.

Kasu honetan, beste askotan gertatuko zaigun bezalaxe, erro jatorrena da, hain zuzen, kanpoko hizkuntzek jasotzen dutena, eta gurea dela diotena "ideia", aldiz, bilakatuagoa delarik, jatorritik aldenduago dagoena. Horrek ez du esan nahi "ideia" ez denik gurea, ez denik euskera, baina nire inguruko euskaldun zahar gehienek ez dute forma hori ez ezagutzen, ezta erabiltzen ere. Bai ordea jatorra den "idea".

"Ide" hitzarekin euskerak berdintasuna erakusten du. "Ireideaz ezkon adi taxa (hala) ondo beti" (OEH) esaerak erakusten digun bezala. Eta, argi esan behar da, ondotik duen "-a" hori mugatzailea besterik ez da. Euskeraz ordea, modernotzearen indarrez, "i" epentetiko gehitzen zaio "ide + i + a" eta batuak forma horixe hartzen du ontzat.

Horrela, "-ide" atzikia dugu esanahi horren lekuko: Ahaide, Barride, Bidaide, Ezkontide, Gogaide, Haurride... baita berriturik ere, "-kide" forma hartuz. Baina jakingarria zaigu latinak eta grekerak atziki berbera ere zutela esanahi berberaz eta gaztelerak eta erromanikoen, hortik abiatuta bere egin dute hiztegi teknikorako: Aploide, Diploide, Deltoide, Elipsoide, Esfenoide, Geoide, Hemorroide, Romboide...

-oide atzikiari buruz RAEk honela dio: Del latín *-oīdes*, y este del griego *-οειδής -oeidés* u *-οειδής -oieidés*, de *-o-* *-o-*, vocal de unión, y *-ειδής -eidés* o *-ειδές -eidés* 'semejante a', de la raíz *deĩdoceĩdos* 'forma'.

Eta "idea" hitzari buruz RAEk dio: Del lat. *idĕa* 'imagen, forma, apariencia', y este del gr. *ἰδέα idéa*.

IDEA, IDEAL, IDEALISTA, IDEARIO, IDEACIÓN, IDEALIDAD, IDEALISMO, IDEALISTA, IDEALIZACIÓN, IDEALIZADOR/A, IDEALIZAR, IDEALMENTE

## ZANAHORIA

ZANA+HORIA>ZANAHORIA>AZENARIO

Hitz hau azaltzeko, jada 45 urte edo, pasa zitzaidan bitxikeria bat aipatu behar dut. Garai hartan txikia nintzen, gaztetxo edo, eta egunero bezala, amonen etxeetara joaten ginan eguna aitona amonei agurtzera.

Gogoan dut, halako batean, zergatia lausoturik badut ere, amaren aita zenak, aitonak, horrela hitz egin zigun niri eta nire anaia txikiagoari: "zuek, orain, ikastolan, azenario ikasten duzue, baina guretzat hori beti izan da [zanahoria](#)."

Une hartan, umemoko izanik, ez nion deus ere ulertu, baina adinak aurrera, eta euskerarekiko jakinmina pizturik, azkenean jakin nuen aitona esaten zidan horren arrazoia.

Kasu honetan ere, egia bada “azenario” hitza euskera dela, aitona ez zuen ulertzen zergatik berarentzat, bere aitari eta amari, bere aitona eta amonari betidanik entzundako “**zanahoria**” hitzak, garai hartan, jada, ez zuen balio eta berak ordura arte sekula entzun gabeko azenario hitzak ordea bai.

Nik, gerora, behin baino gehiagotan izan dut hitz hori aztergai eta halako batean ohartu nintzen delako hitzak sustrai guztiz euskaldunak dituela “zana” eta “horia”. “Zana” horrek egiten zidan halako traba, baina ordurako ikusia nuen “i epentetiko” delakoaren fenomeno sarri gertatzen zela gure hizkuntzan ez ezik besteetan ere eta hitzak beren modernotzean, askotan jazotzen duten fenomeno dela, halako batean “i” bat gehitzearena.

Horrela gertatu zaio “aitari”, testu zaharretan, baita Iruña-Beleian ere, “ata” agertzen delarik. Horrela gertatzen da “zergatik” hitzarekin Bizkaiko kostaldeko herrietan, horietan “zergaitik” esaten dutelarik. Adibideak ugari dira: Bigun-Biguin, Angeru-Aingeru, Angira-Aingira, Angura-Aingura, Antzina-Aintzina, Antzira-Aintzira, Apan-Apain, Apez-Apaiz, Atxa-(H)Aitza, Gana-Gaina, Azken-Aizken, Laster-Laister...

Bada, hitz honetan ere antzinako “**zana**”, “**zaina**” dugu gaur egun, **ideiaren** kasu berdinean, “i” epentetiko gehitzen zaiolarik. Hori baino ez. Gure zanahoria, zaina horia duen barazki bat baino ez da, nahiz eta RAEkoak, beraien estatusarentzat egokiagoa den besterik asmatzen saiatzen diren:

Ez dute ordea esaten nolatan heldu daitekeen arabiera hispanikoko “safunnárya” hitzetik “zanahoria” hitzera, ezta grekerako “σταφυλίνῃ ἀγρία - staphylínē agría” hitzetik delako “safunnárya” hitzera.

Argi dago, aurrez aipatu dudan Ockhamen labana arrazoibide printzipioa. Ezinbestean, baldintza berberetan bi teoriak ondorio berberak baldin badituzte, teoria xumeenak zuzena izateko aukera handiagoa du.

[Epentesi](#)ari dagokionez, gure kolonizazioaren erakusgarri, hona hemen gure “Harluxet Entziklopediak” zer dioen: “Hitz baten barnean etimologiari ez dagokion fonema bat agertzean datzan fenomeno fonetiko (adibidez, (lat.) librum> (eusk.) liburu)”. Definizioa zuzena da, baina adibidea...

Hizkuntzaz ari direnek jakin beharko lukete agerikoa den errealitateari jaramon egiten. Hitz trabatuak aurrez ziren hitz lauen garadura, modernotzea besterik ez direla. Beraz, delako librum>libro horren aurretik badela modernotu ez den hitzik, gure **liburu**, alegia. Aurrerago aztertuko dugu hitz trabatuen fenomeno.

## **BALSA**

BALTZA>BAL TSA>BALSA(gaz)

RAEk dio: “Voz prerromana”.

Erromatarren etorrera aurretiko ahoskia omen da delako “[balsa](#)”, eta horrekin, antza, gutzia justifikaturik daukate, baina, horrela izanik ere, nondik arraio datorkie??? Kasu honetan gertatzen den aldaketa fonetiko bakarra “TZA” fonemaren sinplifikazio hutsa da (TZA>TSA>SA), gaztelerak ezin baititu “TZA edo TSA” horiek ahoskatu.



Kontutan hartzekoa da urmael hauen urak, normalean oso ilun ikusten direla, batik bat, sakonera handirik ezean, zeruaren kolorea islatu ez eta hondoan duten lokaztiarena erakusten dutelako. BALSAR, ENBALSAR, ENBALSE, DESEMBALSAR, DESEMBALSE, REBALSAR, REBALSAR

## ASCO

ASEKO>ASKO>[ASCO](#)(gaz). Ikusgarria kasu honetan hizkuntzalariek ematen duten txiribuelta. RAEk dio: “de [asqueroso](#)”.

Nik uste nuen, -oso atzizkiak amaituriko gainerako hitz guztiek bezala, bat honek ere substantibo batetik abiatuz, substantiboaren nolakotasunak erakusten zituen izenondoak osatzen zituela delako “-OSO” horrek, RAEk berak onartzen duen bezala:

Bada, ez. Kasu honek salbuespena izan behar du. Kasu honetan sustantiboa da, “asco”, izenondotik “asqueroso” hitzetik erasortzandena... Eta, beraz, galdera da, nondik arraio eta nola sortzen zaigu “asqueroso” hitza???

Latin berantiarreko “eschara – costra, escara” delakotik eta honako hau grekerako “ἔσχαρα - eschára” hitzetik omen dator. Jakingarria oso, baina zergatik aldatzen da delako “eschara” horretatik “asqueroso”-ra???

## BASURA

BASA+UR+A>BASURA

Basa, lokatza da. Euri asko egiteagatik, ibaietako urak handi datozenean, inguruetakoa magaletako lokatza nahasian ekartzen dute eta baita ibai bazterretan biltzen dituzten adar eta zaborrak, urak zikinduz. [Basura](#), ur lohitsu dugu, baina gainerako zikinen eraginez, gaztelera, zakar zentzuan jaso dute hitza.

Astakeria da RAEk proposatzen duena, hitza latinetik omen datorrela, latin arruntaren “versūra” hitzetikoa, hau latinezko “verrēre” erraztu, erratzez garbitutik eratorria omen delarik. Ez dute ordea “versūra” horren “r” hori nola gal daitekeen azaltzen.

Arauk:

Arau fonetikoek bokal batetik bestera eta kontsonante batetik bestera egiten den bidea erakusten digute. Arau erretorikoek, aldaketa sinple horiez gain hitzek jasaten dituzten bilakaerak erakusten dizkigute.

- Hitz askok, gaur egun hizkien murrizketa erakusten dute. Esan daiteke, aspaldi honetan, hizkuntzek, modernotze bidean, ekonomiarako joera erakusten dutela eta ziurrenik hori betidanik izango da horrela, baina garai batean ez zen horrela bakarrik behintzat, eta askotan agerikoa egiten da hitzek atzetik atzizki bat edota aurretik aurrizki bat hartzen dutela. Aurrizkien kasuan, hori ez da edozein izaten: BA/BE (PA/PE, FA/FE), KA/KE (GA/GE) eta XE (ZE, JE...) ditugu orokorrean aipatu aurrizki horiek. Aurrizki hartze hau euskera barruan maiz gertatzen den joera dugu, baina euskeratik erromantzeetarako bidean ere oso ugaria da.

Arau fonetiko arruntenak:

- **-KA, -KE, -GA, -GE atzizkia**

Atzizki honek joko handia ematen digu gaztelera bilakaerak jarraitzeko. Euskeraz benetan atzizki aberatsa dugu, nahiz eta ikasketetan ez den honi buruz deusik esaten, bat ere ez ikasketetan eta ezer gutxi liburuetan.

LOKA>LOCUS(lat)

LOKA>LOCA(gaz)

LOCA, LOCO, LOQUEAR, LOQUERA, LOQUERO, LOQUERÍA, LOQUERÍO, LOQUESCA, LOQUESCO, LOQUETERA, LOQUINARIA, LOQUINARIO, ALOCADA, ALOCADO, ALOCADAMENTE, ALOCAR, DISLOCAR, DISLOCACIÓN, DISLOCADURA, DISLOQUE, LOCACIÓN.

ATA>ATA+KA>ATAKA>ATAKA+TU>ATAKATU>ATTACCARE(lat)>ATACAR(gaz)

ATACAR, ATAQUE, ATACADA, ATACADO, ATACABLE, ATACADERA, ATACADA, ATACADO, ATACADORA, ATACADOR, ATACADURA.

ERRE>ERRE+GE>ERREGE>REX, REGIS, REGERE(lat)>REI(gal)>REY(gaz)

REY, REINA, REGENTA, REGENTE, REGENTAR, REGENTEAR, REGENCIA, REINAR, REINADO, REINADORA, REINADOR, REINANTE

KAI>KAI+KA>KAKA>KAKA+TU>KAKATU>CACĀRE(lat)>CAGAR(gaz)

CAGAR, CACA, CAGACHÍN, CAGARROPA, CAGARRUTA, CAGADA, CAGADO, CAGADAL, CAGADERA, CAGADERO, CAGAFIERRO, CAGAJÓN, CAGARRACHE, CAGAACEITE, CAGARRIA,

JUGAR

MANCA

NUNCA

TOCAR

VACA

• **+BE B>P>F>V>H**

Euskera barruan hor ditugu:

LAR>BE+LAR>BELAR,

ATZ>BE+ATZ>BEATZ,

ATZ>HATZ,

ATZ>HATZ>BE+HATZ>BEHATZ,

BIPER>PIPER,

BARKATU>PARKATU,

BESTA>PESTA>FESTA

ATA>BE+ATA>PATA/O(gaz)>PAITA(eus),

ATA>AHATA,

BAGU/O>PAGU/O>FAGU/O,

IKU/O>BE

+

IKU/O>BIKU/O>PIKU/O)

BAKE>PAKE,

BALU>PALU>PALUS(lat)>PALO(gaz),

BALU>PALU>ΦΑΛΛός/PHALLÓS(gr)>PHALLUS(lat)>FALO(gaz),

BEKATU>PEKATU>PECCĀTUM(lat)>PECADO(gaz),

LANTATU>LANDATU

LANTATU>BE+LANTATU>PLANTATU>PLANTARE(lat)>PLANTAR(gaz)

ANKA>BE+AL+ANKA>BALANKA>PALAKA>PALANCA(gaz), ANKA>HANKA,

OSTA>BE+OSTA>POSTA(gaz),

OSTE>BE+OSTE>POSTE(gaz),

Euskeratik...:

BESTA>PESTA>FESTA>FESTA(lat)>

BESTA>PESTA>FESTA>FESTA(lat)>FIESTA(gaz)

BESTA>PESTA>FESTA>FESTA(lat)>FÊTE(fra)

Delako latinezko festa hori latinezko jatorrizko “festum” hitzaren plurala omen da.

FIESTA, FESTA, FESTIVAL, FESTEJO, FESTEJAR, FIESTAR, FIESTEAR, FESTEJAR, FESTEJADOR, FESTERA, FESTERO, FESTICHOLA, FESTÍN.

ATA>BE+ATA>BATA(\*)>BAT(pers),

ATA>BE+ATA>BATA(\*)>BAT(pers)>BAṬṬ(arab.

klas.)>



ATA>BE+ATA>BATA(\*)>BAT(pers)>BAṬṬ(arab. klas.)>PÁṬṬ(arab. hisp),  
ATA>BE+ATA>BATA(\*)>BAT(pers)>BAṬṬ(arab. klas.)>PÁṬṬ(arab. hisp),>PATO/A(gaz)

BAGU/O>PAGU/O>FAGU/O>FAGUS, FAGEA(lat),  
BAGU/O>PAGU/O>FAGU/O>FAGUS, FAGEA(lat)>FAYA(gaz),  
BAGU/O>PAGU/O>FAGU/O>FAGUS, FAGEA(lat)>FAYA(gaz)>HAYA(gaz),  
HAYA, FAGACEA, HAYAL, HAYEDO, HAYUCO.

Grekerako φηγός phēgós "haritz mota" kontutan hartuz gero, antzinako erro indoeuroparreko jatorria duen hitza omen. Grekerako delako "phēgós" horrek ere jatorri berbera duenik ez dut nik ukatuko, baina aipatu B>P>F>V>H arau hori kontutan izanik, argi dago euskerak duela sustrairik antzinakoena.

IKU/O>BIKU/O>PIKU/O>FICUS(lat),  
IKU/O>BIKU/O>PIKU/O>FICUS(lat)>HIGO(gaz)  
HIGO, HIGA, HIGATE, HIGUERA.

BAKE>PAKE>PAX, PACIS(lat)  
BAKE>PAKE>PAX, PACIS(lat)>PAZ(gaz)>PAZ(gal)>PAZ(port),  
BAKE>PAKE>PAX, PACIS(lat)>PAIX(fra), Hemen "i" epenetikoa  
BAKE>PAKE>PEACE(ing),

BAKE>PAKE>FAKE(ing),  
PAZ, PACIFICA, PACIFICO, PACIFICAR, PACIFICACIÓN, PACIFICADOR.

BEKATU>PEKATU>PECĀTUM(lat)>PECADO(gaz),  
PECADOR

BESAPE>BABES>PAVES(gaz),

PERIA>FERIA>FERIA(gaz),

BASARAN>PASARAN>PATXARAN>PACHARAN(gaz),

BORTU>PORTU>PORTUS(lat),  
BORTA>PORTA>PORTA(lat),

ERRA>BE + ERRA>BERRA>PERRA>FERRA>FERRUM(lat)>FER(fra),  
ERRA>BE + ERRA>BERRA>PERRA>FERRA>FERRUM(lat)>HIERRO(gaz),  
ERRA>BE + ERRA>BERRA>PERRA>FERRA>FERRUM(lat)>FERRO(gal),  
ERRA>BE + ERRA>BERRA>PERRA>FERRA>FERRUM(lat)>FERRO(port),  
BERRA, PERRA, FERRA, BERRATU, PERRATU, FERRATU, PERRATZAILE, FERRATZAILE,  
FERRADA, FERRAR, FERRADOR, FERRADURA, FERRALLA, FERRALLISTA, HERRADA, HERRADERO,  
HERRAR, HERRERO, HERRADOR, HERRADURA

LORA>LORE>BE+LORE>\*FLORE>FLOS, FLORIS(lat)  
LORA>LORE>BE+LORE>\*FLORE>FLOR(gaz)  
FLORACIÓN, FLORITURA, FLORADA, FLORA, FLORAL

Hitzak, fonema biren nahaste bat jasaten du, bokala galdu eta bietatik berri bat sortuz, fonema berri **trabatu** bat osatuz. Gazteleraren kasuan azken A/E horren galera sortzen da, erromanikoetan normala den **apokopearen** joeragatik.

EREMU>BA+EREMU>BARAMU(\*)>PARAMU(\*)>PARAMUS(lat),  
EREMU>BA+EREMU>BARAMU(\*)>PARAMU(\*)>PARAMUS(lat)>PARAMO(gaz),  
PARAMO, PARAMOSO.

ERI+TU>ERITU>BE+ERITU>FERITU(\*)>FERITUM(lat)  
ERI+TU>ERITU>BE+ERITU>FERITU(\*)>FERITUM(lat)>FERIDO(gal)  
ERI+TU>ERITU>BE+ERITU>FERITU(\*)>FERITUM(lat)>FERIDO(gal)>HERIDO(gaz)  
HERIDO, HERIR, HERIDA, HERIDOR, HIRIENTE.

SU + BERA>SUBERA>SUPERA>SUPERĀRE(lat)  
SU + BERA>SUBERA>SUPERA>SUPERĀRE(lat)>SUPERAR(gaz)  
SU + BERA>SUBERA>SUPERA>SUPERĀRE(lat)>SUPER(gaz)  
SU + BERA>SUBERA>SUPERA>SUPERĀRE(lat)>SOBRA(gaz)

SUPERABLE, SUPERACIÓN, SUPERADOR, SUPERANTE, SOBRA, SOBRADA, SOBRAR, SOBRADERO,  
SOBRADEZ, SOBRADO, SOBRADOR, SOBRADA, SOBRADAMENTE, SOBRADOR  
Gazteleraz eta gainerako erromanikoetan azken “a” horren galera sortzen da, **apokopearen**  
joeretatik.

BE+ON>BONUS, BONUM(lat)  
ON>BE+ON>BON(kat)  
ON>BE+ON>BON(fra)  
ON>BE+ON>BOM(port)  
ON>BE+ON>BON(\*)>BO(gal)  
ON>BE+ON>BO(gal)>BUEN(gaz)

ON>BE+ON+A>BENA(\*)>BENE(lat)  
ON>BE+ON>BEN(\*)>BE(korts.)  
ON>BE+ON>BEN(gal)  
ON>BE+ON>BEN(gal)>BIEN(gaz)  
ON>BE+ON>BEN(gal)>BIEN(fra)

LUMA>BE+LUMA>PLUMA(lat)  
LUMA>BE+LUMA>PLUMA(lat)>PLUMA(gal)  
LUMA>BE+LUMA>PLUMA(lat)>PLUMA(gaz)  
LUMA>BE+LUMA>PLUMA(lat)>PLUME(fra)

LORE>BE+LORE>FLOS, FLORIS(lat)  
LORE>BE+LORE>FLOWER(ing)  
LORE>BE+LORE>FLOR(gal)  
LORE>BE+LORE>FLOR(gal)>FLOR(gaz)  
LORE>BE+LORE>FLEUR(fra)

Azken bi kasu hauetan (PLUMA eta FLOR) argi utzi beharrekoa da latinaren jarraitzaile itsuek apustu egiten dutela euskerazko hitzaren jatorria latinean jartzen eta euren iritzian, euskera da handik jaso eta apokope baten ondorioz euskerara Luma eta Lore ematen dutela esaten digutenak. Hori zeharo ulertezina da, izan ere “PL” eta “FL” fonema gogorrek ezin dutela “L” fonema bigun batera bilakatu. Bidea alderantzizkoa da. Erromantzeen eta beste hainbat hizkuntzen joera garbia da aipatu aurrizkiak hartzearena. Berdintsu gertatzen zaie “lluvia” hitza “pluvia” hitzetik eratortzen saiatzen direnean. Ez al dira ohartu “aluvion”, “diluvio” bezalako hitzek zer erakusten duten ala???

\*ULU>OLO>OILO

OLO>BE+OLO>POLO(gal)

OILO>BE+OILO>POLLO(gaz)

Gaur egun “olo” gure soroetan aldatzen duten landara hazidun baten izena dugu. Baina, jakina, oloa oiloentzat erabili ohi den laborea dugu, eta hortik bere izena.

- **+KA K>G>H**

Euskera barruan hor ditugu:

LANPERNA>GALANPERNA,

ANTZA>ANTZAR

ANTZA>GE+ANTZA+GI>GANTZAGI...

ANTZA>GE+ANTZA>GANTZA(\*)>GANSA

ERRA>GE + ERRA>GERRA>GUERRA(gaz)

- **+XE**

APO>XE+APO>ZAPO

APO>XE+APO>ZAPO>SAPO(gaz)

RAEk dio: “Vozprerromana, de origenonomatoéyico, porelruidoquehace al caerenuncharco o entierramojada”. Horrek ez du, ordea, azaltzen euskerazko jatorrizko hitzaren “APO” hitzaren nondik norakoa.

ENDA>XE+ENDA>XENDA. ENDA>INDA

ZERRA>SIERRA

ZOPA>SOPA

ZORNA>SORNA

ZELA>SILLA

ZORTE>SORTE>SUERTE

- **TRABATUAK**

Silaba trabatuak eratzearen fenomenoak hizkuntza berrietan gertatzen da batez ere. Bi kontsonante arteko bokala galtzen denean sortzen da.

Izan, euskerak oso hitz trabatu gutxi ditu, euskeraren jokaera bokal arteko kontsonantea galtzekoa baita. Gaztelarekin alderaturik euskerak apur batzuk besterik ez ditu.

HAREK>HARK

ANDERE>ANDRE

LIBERE>LIBRE

- **PLAYA**

BLAI+A>BLAIA>PLAIA>PLAYA(gaz)

PLAYA, PLAYAR, PLAYAZO

- **OBRA**

(H)OBE+RA>(H)OBERA>OPERA(lat)

(H)OBE+RA>(H)OBERA>OBRA(gaz)

Jakina da, gure ingurua hobetzeko eta ezinbestean gure osasuna berreskuratzeko etxean, garajeetan, oilategian... dena delakoan konponketak, lanak, obrak egiten ditugu eta noski, gure osasuna jokoan denean, besterik ez ezik ebaketara, operaziora jotzen dugu.

OBRA, OBRAR, OBRADOR, OBRADA, OBRADERA, OPERAR, OPERACIÓN, OPERABLE, OPERACIONAL, OPERADOR, OPERADORA, OPERA, OPERANTE, OPERARIA, OPERARIO.

### **GRUA**

GORU>GRUS(lat)

GORU+A>GORUA>GRÚA(gaz)

GRÚA, GRUADOR, GRUERA, GRUERO, GRUISTA.

### **SOBRA**

SU + BERA>SUBERA>SOBERA>SOBRA

“Su” hitzak askorako ematen du. Kasu honetan suarekiko beratasunak, barruan su handia duena irudikatzen du, sua sobera duena, gehiegiz. Eta gehiegizko hori geratzen zaio “sobera” hitzari esanahi gisa.

SOBRA, SOBRANTE, SOBRADA, SOBRADAMENTE, SOBRADO, SOBRADAR, SOBRADERO, SOBRADEZ, SOBRADILLO, SOBRADOR, SOBRADORA, SOBRANCERA, SOBRANCERO.

Su hitzetik sortuak dira “suzio”, “subasta”, “supera” eta “super”.

### **LUCRO**

LUKURU>LUCRUM(lat)>LUCRO(gaz)

LUCRO, LUCRAR, LUCRATIVA, LUCRATIVO, LUCROSA, LUCROSO

### **LIBRO**

LIBURU>LIBRUM(lat)>LIBRO(gaz)

LIBRO, LIBRERIA, LIBRERIL, LIBRERA, LIBRERO.

### **ESPLIEGO**

EZPILIKU>IZPILIKU>ESPLIEGO

### **FRUTO/A**

BURUTU>FRUITU>FRUTO

FRUTO, FRUTA, FRUTERA, FRUTERO, FRUCTÍFERA, FRUCTÍFERO, FRUTAL, FRUCTÍFERAMENTE, FRUCTIFICABLE, FRUCTIFICAR, FRUCTIFICACIÓN, FRUCTIFICADOR, FRUCTIFICADORA, FRUCTOSA, FRUTERÍA

### **BRUJA/O**

BURU>BURU+XA>BURUXA>BRUJA

BRUJA, BRUJO, BRUJERIL, BRUJEADOR, BRUJEAR, BRUJERA, BRUJERO, BRUJERÍA, BRUJESCA, BRUJESCO, BRUJEZ, BRUJILLA

### **ANCLA**

ANKURA>ANCLA ANKURA>AINKURA>AINGURA

ANCLA, ANCLAR, ANCLEAR, ANCLAJE, ANCLOTE, ANCLADERO.

### **AGRO**

“Pater” eta “mater” hitzetatik “padre” eta “madre” bezalaxe, “ager” hitzetik gaztelerak “agro” hartu du.

Euskaraz, lurran, lanerako lurrak, labore lurrak, agerian daude, ez aterpean, eta hortik, agerikotik, nekazaritzarako lurrak izendatzen ditu latinak, euskarazko hitz berbera erabiliz, gaztelerara metatesi bat egiten “agro” osatzen duelarik.

AGER(eus)>AGER, AGRI(lat)>AGRO

AGRESTE, AGROPECUARIO, AGROQUÍMICA, AGRÓNOMO, AGROALIMENTACIÓN, AGROALIMENTARIA, AGROALIMENTARIO, AGROFORESTAL, AGROINDUSTRIA, AGROECOLÓGICO, AGROECOLÓGICA, AGROECOLOGÍA, AGRONÓMICA, AGRONÓMICO, AGRONOMÍA, AGROPECUARIA, AGROPECUARIA.

### **GRANO**

GARA>GARA+UN>GARAUN>GARANO>GRANO  
GRANO, GRANADA, ENGRANAJE, ENGRANAR

### **LLANO**

LAUN>LANO>LLANO  
LAUN>LANO>BE+LANO>PLANO  
PLANO, PLANA, PLANADA, PLANADOR, PLANICIE, PLANEAR, PLANAZO, PLANAZÓN, PLANEADOR, PLANEADORA.

### **PLAN**

LAN>BE+LAN>PLAN  
PLAN, PLANEAR, PLANIFICAR, PLANEAMIENTO, PLANEACIÓN.

### **LEPRA**

LEGE>LEGE+BERA>LEGEPERA>LEPRA  
LEPRA, LEPROSA, LEPROSO, LEPROSERÍA, LEPROCOMIO, LEPROSERA, LEPROSERO, LEPROSORIO.

### **PLUMA**

LUMA>BE+LUMA>PLUMA  
PLUMA, PLUMERO

### **FLOR**

LORE>BE+LORE>FLOR  
FLOR, FLORA, FLORACIÓN, FLORERO, FLORISTA, FLORISTERIA, FLOREAR, FLOREADA, FLOREADO, FLORAL, FLORAR

### **POBRE**

BURUBE>POBRE  
POBRE, POBRETÓN, POBREDAD, POBREZA, POBRETE, POBRETERIA, POBRISMO, POBRÍSIMO.

### **JUGLAR**

Inork, zalantzarik baldin badu kolonizatzaileren atzaparrak noraino heltzen direnaren inguruan, hitz honek eta berataz egiten duten irakurketa etimologikoan begia jarri besterik ez du.

Lehen tranpa [JOGLAR](#)>JUGLAR bilakaera planteatzea, alegia Otik U sortzen dela esatea, beti alderantzizkoa gertatzen denean eta bestetik, jatorria “iocularis” hitzean jartzea et ahoi latin adela esatea. Ez noan i esatera latina kez zuenik delako hitz hori erabili, baina.... “iocu” erroa, joku alegia, noiztik da latina??? Eta “-laris” atzizkia??? Zenbat hitz ditu latinak “-laris” atzizkiarekin osatuta???

JOKALARI>IOCULĀRIS>JOGLAR>JUGLAR  
JUGLAR, JUGLARA, JUGLARESA, JUGLARERÍA, JUGLARÍA, JUGLARESCA, JUGLARESCO.

- **ITZULKETAK (Metatesia)**

Hitz baten barneko fonemak lekuz aldatzean gertatzen den fenomenoari deritzaio itzulketa.

Hitzenmodernotzehaunahikoaarrunta da hizkuntzetan, oro har. Euskeraz da horrenbestegertatzen, normalagoa da hizkuntzaberriagoetan.

Euskerazditugunitzulketakhonakoadira:

ARLO>ALOR

ARBEL>ARPEL>ALPER

BAGE>GABE

BAGA>GABA

BESABE>(BESAPE)>BABES

ANGERUEN>ENANGERU

GALARREN>GALERNA

(H)ODEI>(H)EDO

MOZORRO>ZOMORRO

TREPEL>PETRAL

UKUTU>UKITU>IKUTU

### CARRO

ORGA>KARRO>CARRO

### CORZO

ORKATZ>KORTZO>CORZO

#### • AFERESIA

Hizkuntzan fenomeno arrunta da hitz batean hasierako bokal edo kontsonante baten galera. Fenomeno honek AFERESIA du izena. Adibide ugari ditugu fenomeno honenak, hala nola hizkuntza arruntean, nahiz toponimian.

Hizkuntza arruntean, gaztelera hor ditugu BUS, autobus hitzetik eratorria, edota ORA, ahora hitzetik eta beste hainbat.

Euskaraz, berriz, esaterako ETXABOLA eta TXABOLA hitzak ditugu. Biak ala biak ETXE hitzetik eratorritakoak dira, baina batetik besterako bilakaeran, bigarrenak hasierako bokala, "E", galdu egin du. Lehena jatorrizkoa da eta bigarrena aldaera eratorria eta modernoagoa, baina baita zabalduagoa ere, eta, ondorioz, hiztegieta bigarren hau biltzen da. Gaztelera berak ere jasotzen du, grafia berera egokituz CHABOLA.



Aferesia jasan duen beste hitz arrunt bat GURPIL da. Gurpil hitzak bi erro ditu bere eraketan, batetik gur- eta bestetik -pil. Bigarren elementua ohikoa da, nahiz eta bere forma naturala -pil ez eta -bil den. Horrela, -bil/-pil erroek bildutakoa, pilatutakoa, metatutakoa esan nahi du eta forma borobilduei lotu ohi da. Lehen atala ordea gur- da eta kasu honetan ez da ulertzen berekisa, erroak lehen hitza galdu duelako. Jatorriz EGUR zen.

Toponimiak ere fenomeno horren lekuko ugari ematen dizkigu eta nabarmenak dira ETXE, IBAI eta IBAR erroak dituztenak, hala nola, TXAGORRITXU, ETXAGORRITXUren ordainetan, TXABARRI, ETXABARRIren ordezko, TXANIZ, ETXANIZen ordezko edo TXAMARTIN, ETXAMARTINen ordezko, XABIER (JAVIER), EXABIER, EXABERRIren ordezko. Kontsonantearen galera ere jasotzen da, horrela, IZARRAITZ esaten da, bere jatorrizkoa LIZARRAITZ delarik, edo AndiamendikoLORDIaren jatorriko ELORDIA eta Badaia mendizerrako LORRITXOren jatorriko ELORRITXO eta abar luzea.

Fenomeno hauek errazago gerta ohi dira eta justifikatzen dira baldin eta, lekuan lekuko, jatorrizko hizkuntza zenak bere tokia galtzen badu, kanpotik etorritako beste baten mesedetan. Hori gertatzen denean, hitza osatzen duten erroen esanahia galdu egiten da. Hitzak ez du

esanahirik hizkuntza berri horren hiztunentzako eta, ondorioz, eufonia, ekonomia, arau fonetikoak eta dena delakoak bitarteko, hitza desitxuratuz joaten da.

### **CHABOLA**

ETXABOLA>TXABOLA>CHABOLA

### **TAPA**

ATA+PA>ATAPA>TAPA      Atearen azpian dagoena ala gordetzen dena.

### **TORRE**

ATA+AURRE>ATAURRE>\*TURRE>TURRIS(lat)

ATA+AURRE>ATAURRE>\*TURRE>TORRE(gal)

ATA+AURRE>ATAURRE>\*TURRE>TORRE(gal)>TORRE(gaz)

TORRE, TORREÓN, TORREAR, TORREADA, TORREADO.

